

Dirulaguntza-lerroa	KONTSUMORAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK - BASAURI BONUA
Aurrekontu-partida	062 4310 48099
Partidaren deskribapena	TRANSF. ARR. FAMILIEI - EKONOMIA- ETA MERKATARITZA-SUSTAPENA
Zenbatekoa	300.000,00 €
Laguntza emateko prozedura	ZUZENEAN EMATEA

Deialdi hau argitaratzen da Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren babesetan. Ordenantza hori 2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onetsi, eta 2024ko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, eta berau da deialdi honen oinarri arautzailea.

1.- XEDEA

«BASAURI BONUA»ren deialdi honen helburua da diruz laguntzea Basauriko merkataritza-, ostalaritza eta zerbitzu-establezimenduetan kontsumitzea, erosketetarako deskontu-bonuen bidezko pizgarri-sistema baten bidez.

Bonu horiek herritarren esku egongo dira, kanpainari atxikitako udalerriko establezimenduetan.

Bonuak onuragarriak dira herritarrentzat, erosketetan deskontua lortzen dutelako; eta merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduek ere onura lortzen dute, bonuak dakarren deskontuaren zatia jasotzen dutelako Udaletik.

Hemen araututako dirulaguntzak norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez ematen dira, objektibotasun-, gardentasun-, berdintasun- eta publizitate-printzipioekin bat etorrita.

2.- ENTITATE ONURADUNAK

Kanpainarekin bat egin dezakete merkataritza-, ostalaritza- edo zerbitzu-sektorean jarduera komertzial bat duten, jarraian adierazitako baldintzak betetzen dituzten, eta zabalik dagoen establezimendu bat duten pertsona fisiko edo juridikoek, bonuak ordainbide gisa onartzen badituzte. Honako hauek dira jarduerak bete beharreko baldintzak:

- a) EJZn alta emanda egon, eta kuota Basaurin edukitzea.
- b) Basaurin kokatuta egotea.
- c) Soldatapeko 10 langile baino gutxiago izatea.
- d) Zerga-betebeharrak dituzten administrazio publikoekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea. Merkataritza Atalak ofizioz egiaztatuko du Basauriko Udalarekiko zerga-egoera.

Basauriko Udalak aukera izango duenpresa eskatzaileak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko beharrezko iritzitako dokumentazio gehigarria eskatzeko, edozein unetan. Ez dira

aintzat hartuko ez onartuko aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskabideak.

3.- DIRUZ LAGUNDUKO DIREN ZENBATEKOAK

Bonu bi egongo dira, gastu-gaitasun desberdinarekin:

- **6 euroko gastuari dagokion bonua:** 6 euroko erosketa bakoitzeko, Udalak 2 euroko dirulaguntza emango du, eta gainerako 4 euroak kontsumitzailearen kontura izango dira.

- **15 euroko gastuari dagokion bonua:** 15 euroko erosketa bakoitzeko, Udalak 5 euroko dirulaguntza emango du, eta gainerako 10 euroak kontsumitzailearen kontura izango dira.

NAN, IFZ edo AIZ bakoitzeko 60 €-ko gastuari dagozkion bonuak erosi ahal izango dira, gehienez ere. Bonu horiek ezingo dira dirutan kobratu, eta beren zenbatekoa ere ez da inola ere itzuliko. Gastuak 6 eta 15€-koa edo handiagoa izan beharko du, hurrenez hurren, bonu bakoitzeko. Onuradun bakoitzak establezimendu bakar batean edo gehiagotan erabili ahal izango ditu bonuok, erosketa batean edo gehiagotan, eta konbinatu ere egin ahalko dira, gehieneko mugara iritsi arte.

4.- ESTABLEZIMENDUAK KANPAINARA ATXIKITZEA ETA BONUEN BANAKETA

4.1. ATXIKITZEKO EPEA

Jardueren titularrak 2025eko apirilaren 1etik 13ra (biak barne) atxiki ahal izango dira «BASAURI BONUA» kanpainara.

4.2. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Kanpainara atxiki nahi duten establezimenduen titularrek behar bezala bete beharko dute eskaera-inprimakia. Agiri horretan, erantzukizunpeko adierazpenak onartu beharko dituzte, besteak beste. Inprimakia webgune honetan egongo da eskuragarri: <https://bono.basauri.eus>. Gainera, eskatutako dokumentuak atxiki beharko dira. Besteak beste, honako hauek:

1. Zorrik ez izateari buruzko ziurtagiriak, Gizarte Segurantzak eta Foru Ogasunak emandakoak. Nahikoa izango da eskabide-inprimakian jasotako erantzukizunpeko adierazpena betetzea.
2. Erantzukizunpeko adierazpena, interesduna Basauriko Udalaren Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren 11. artikuluan jasotako debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.
3. Eskaeran berariazko baimena ematea Udalak egiaztatu ahal izateko interesdunak emandako banku-datuak egiazkoak direla. Baimenik ematen ez badu, banku-erakundeak sinatutako eta zigilatutako ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta agiri horretan jasota egon beharko da interesduna Basauriko Udalari emandako banku-kontuaren titularra dela. Nolanahi ere, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek zigilatutako banku-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Kanpainara atxikitzeke eskaera egiteak esan nahi du interesdunak deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak berariaz eta formalki onartzen dituela.

Eskaerak behar bezala eta osorik betetzen ez badira edo eskatutako dokumentazioarekin batera aurkezten ez badira, pertsona edo erakunde interesdunari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Gainera, berariaz adieraziko zaio hala egiten ez badu, ulertuko dela eskaerari uko egin diola, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan ebazpena eman ondoren.

Eskatzaileak eskaeran jasotako daturen bat faltsutzen badu, dagokion zehapen-araubidearen mende egon ahal izango da.

Ez da beharrezkoa izango dagoeneko Administrazio Publikoaren esku dauden dokumentuak edo datuak aurkeztea, APELen 53.1 d) artikulua xedatzen duen moduan.

Kanpainara atxikitzeke eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaerak aztertzeke alde aurreko faseari ekingo zaio, interesdunek oinarrietan ezarritako baldintzak benetan betetzen dituztela egiaztatzeke. Horretarako, aurkeztutako dokumentazioa eta erantzukizunpeko adierazpen gisa jasotako inguruabarrak egiaztatu ahalko ditu Basauriko Udalak, eta egoki iritzitako egiaztatze, ikuskatze eta gainerako kontrol-neurri guztiak egiteko eskubidea izango du, baliabide publikoak behar bezala aplikatzen direla zaintzeko eta kanpaina behar bezala garatzen eta aplikatzen dela egiaztatzeke. Atxikitako establezimenduek Udalak eskatutako informazio guztia eman beharko dute.

Baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, kanpainara atxikitako establezimenduen zerrenda argitaratuko da Basauriko Udaren Bono Basauri webgunean: <https://bono.basauri.eus>.

Kanpainari atxikitako establezimendu bakoitzari erabiltzaile bat eta pasahitz pertsonalizatua emango zaizkio, plataformara sartzeko. Plataforman, eskuragarri izango dituzte esleitu zaizkien deskontu-bonuak, eta, era berean, plataformaren bidez trukatu beharko dituzte bonuak, salmenta egitean edo zerbitzua ematean.

Enpresa eskatzailearekin harremanetan jartzeko, hark eskabidean adierazitako helbide elektroniko edo telefono-zenbakira joko da.

4.3. BONUAK BANATZEKO PROZEDURA.

Bonuak berdin banatuko dira atxikitako establezimendu guztien artean, establezimendu bakoitzak eskatutako bonu-mota kontuan hartuta

5.- ATXIKITAKO ESTABLEZIMENDUEN BETEBEHARRAK

Kanpainarekin bat egiten duen establezimenduak, atxikitzea sinatzean, honako betebeharrak berenganatuko ditu:

- Basauriko Udalarari datuetan egon daitekeen edozein aldaketaren berri ematea. Berezik, eskatzailearen helbideari, jarduerari eta banku-datuei dagozkienak.

- Publizitate-euskarriak jaso eta establezimenduan jartzea, ondo ikusten diren toki batean.
- Webgunean, eta emandako erabiltzailea eta pasahitza erabiliz, bonuak produktuekin/zerbitzuekin trukatzeko, bezeroek ordaintzeko bitarteko gisa erabili nahi dituztenean.
- Bezeroei faktura laburtua edo tiketa ematea, non ordaintzeko modua agertu beharko baita; alegia, ordainketa bonu bidez egin dela.
- Bezeroei bonuak modu aktiboan eskaintzea, eta salmenta egitean edo zerbitzua ematean berauek trukatzeko. Bonuak 16 urtetik gorako bezero guztiei eskainiko zaizkie, denak agortu arte, eta interesdunak pertsonaren nortasuna egiaztatzeko konpromisoa hartuko du, bere erantzukizunpean.
- Bonuak ez atxiki edo erreserbatzea, eta bonuak ez bideratzea zenbait artikulua edo zerbitzu saltzera. Halaber, bonuak ezingo dira erabili opari-bonuak saltzeko.
- Tiketaren edo justifikazio-fakturaren kopia bat gordetzea, NANaren zenbakia eta erosketan trukaturako bonu(ar)en kopurua adierazita.
- Establezimendua bezeroentzat zabalik egotea kanpainak irauten duen bitartean, merkataritza-ordutegian.
- Honako hauetan jasotako printzipioak eta obligazioak betetzea: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen baita; eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako dena. Hala, dokumentazio, publizitate, irudi edo materialetan ezingo da hizkera sexista erabili, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, honako balio hauek sustatu beharko dira, emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, parte-hartze orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero-rolen eta -identitateen aniztasuna.
- Plataformara sartzeko gakoak arretaz zaintzea, behar ez bezala erabil ez daitezen, eta horiek beste pertsona batzuei ez ematea.

Betebehar horiek betetzen ez badira, interesdunari baja emango zaio kanpainan, berehala, eta haren establezimenduari dagozkion bonuak berriro banatuko dira, parte hartzen duten gainerako establezimenduen artean.

- Bonuekin eskuratutako ondasunen itzulketa-politikari dagokionez, ondasun horiek itzuliz gero, bonuaren zenbatekoa prezio bera edo handiagoa duen beste erosketa batekin trukatu ahalko da, baina zenbateko hori ezingo da, inolaz ere, ez eskudirutan ez txartelean itzuli. Bezeroei horren berri eman beharko zaie.
- Basauri Bonuak eta beste erakunde batzuen bonuak ezingo dira metatu erosketa berean, eta bonu-mota bakoitza faktura sinplifikatu desberdin bati lotu beharko zaio.

6.- KANPAINAREN INDARRALDIA

Kanpainari atxikitako establezimenduetan bonuak trukatzeko epea 2025eko apirilaren 28tik maiatzaren 25era izango da, biak barne, eta Bono Basauriren webgunean argitaratuko da: <https://bono.basauri.eus>.

Alabaina, epe hori amaitu ondoren bonu guztiak agortu ez badira, bigarren truke-aldi laburrago bat egin ahalko da, onuradunek ahalik eta bonu gehien kontsumitu ditzaten. Sobera geratutako edo itzultitako bonuak modu ekitatiboan birbanatuko dira, maiatzaren 21etik 24ra

bitartean, hala eskatzen duten eta lehen truke-aldian esleitutako bonuen % 90, gutxienez, trukatu duten establezimenduen artean.

Udalak dagozkion egiaztapenak egin, eta bonuak establezimendu horien artean birbanatuko ditu, maiatzaren 27tik ekainaren 8ra bitartean trukatu ahal izan ditzaten.

Epe hori amaitutakoan, bonuek ordaintzeko bitarteko gisa duten balioa galduko dute.

7.- ATXIKITAKO ESTABLEZIMENDUEK AURKEZTU BEHARREKO JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINTZEKO PROZEDURA

Basauriko Udalak establezimenduari edo jarduerari erosketetan erabilitako bonuen zenbatekoa ordaindu ahal izateko, trukaturako bonu guztiek dagokien tiketa edo faktura izan beharko dute lotuta, NAN-zenbakia eta erosketa bakoitzean trukaturako bonuen kopurua adierazita. Dirulaguntza justifikatzeko, bonu horien zenbatekoa bonuen batura baino handiagoa edo berdina izan beharko da.

Ez dira baliozkotuko truke-epea amaitzean dagokion tiketa edo faktura lotuta ez duten bonuak, ezta bonuaren eta dagokion tiketaren arteko lotura zalantzaezinik ez dutenak ere.

Bonuak trukatzeko kanpaina amaitu ondoren, trukaturako bonuen guztizko zenbatekoa 3.000€ edo handiagoa bada, Udalak dagokion zenbatekoa dirutan bihurtu ahal izateko, establezimenduak Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean adierazten den moduan.

Hala, pertsona edo erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar eguneko epean dokumentuak aurkez ditzan. Era berean, berariaz adieraziko zaio hala egin ezean, joko dela ordainketa jasotzeko eskabidean atzera egin duela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua araberako ebazpena eman eta gero.

Laguntzak emateko unean, ofizioz egiaztatuko da establezimenduek Basauriko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituztela.

8.- AURREKONTU-KONTSIGNAZIOA

Basauriko Udalak, 2025eko ekitaldian zehar, 300.000,00 eurobideratuko ditu, gehienez, deialdi honetako diru-zuzkiduretar, honako partida honen kontura: 062 4310 48099 Transf. Arr. Familiei - Ekonomia- eta merkataritza-sustapena.

9- LAGUNTZAK ORDAINTZEA

Laguntzak ez dira itzuli behar izango.

Diruz lagundutako zenbatekoak kanpainari atxikitako pertsona fisiko edo juridikoari ordainduko zaizkio.

10.- APLIKATZEA DAGOKION ARAUDIA

Prozedura arautuko dute onetsitako deialdiak berak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak, eta Basauriko Udalaren Dirulaguntzak emateko indarreko Ordenantzak.

11.- ONURADUNEI BURUZKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALITASUNA

Basauriko Udalak bere gain hartzen du laguntzen onuradunei buruzko informazioa kanpainaren eremutik kanpoko xedeetarako erabiliko ez dela bermatzeko konpromisoa.

